


**EUSKAL AEKO ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA (ZKI) 2013ko 2. hiruhilekoa**

## Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta-indizea %4,3 jaitsi zen 2013ko bigarren hiruhilekoan

### ***Merkataritza %2,6 jaitsi zen eta beste zerbitzuak %5,8***

Eustatek emandako datuen arabera, 2013ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %4,3 murriztu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %2,1 nominala murriztu da, urtaro-eraginak kenduta.



Merkataritzaren salmenta-indizea %2,6 nominala jaitsi da 2013ko bigarren hiruhilekoan; indizearen parte diren beste zerbitzuetan %5,8 jaitsi da 2012ko aldi beraren aldean.

Merkataritzaren barruan, Handizkakoan %4,6ko jaitsiera nominala dago, eta Txikizkakoan %0,9koa. Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan %4,6ko murrizketa dugu aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Beste zerbitzuen sektore guztietan, tamaina ezberdinetako jaitsierak. Jaitsiera handienak Informazio eta komunikazioetan, %11,7; Ostalaritzan antzekoa, %11,3, eta Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan, %7,1 negatiboa. Apalagoak dira

Jarduera zientifiko eta teknikoetako salmenten jaitsiera, %2,3 eta Garraio eta biltegitzearena, %1,3.

Hiru lurraldeek antzeko jaitsierak izan dituzte salmenta-indizeetan: %4,4 Bizkaian, %4,3 Araban eta %4,0 Gipuzkoan.

### **Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %5,4 jaitsi ziren bigarren hiruhilekoan**

2012ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %4,5 jaitsi da, eta beste zerbitzuena %7,4.

Merkataritzan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %3,9 jaitsi da. Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea %3,8 eta Handizkakoarena %5,4.

#### **1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. 2. hiruhilekoa. 2013(p)**

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
<b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>-4,3</b>	<b>-2,1</b>	<b>-5,4</b>	<b>-1,2</b>
Araba	-4,3	1,2	-6,3	-1,8
Bizkaia	-4,4	-2,1	-5,1	-0,2
Gipuzkoa	-4,0	-3,4	-5,5	-2,7
<b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>				
<b>Merkataritza</b>	<b>-2,6</b>	<b>-2,9</b>	<b>-4,5</b>	<b>-2,5</b>
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-4,2	0,4	-3,9	0,0
Handizkako merkataritza	-4,6	-2,2	-5,4	-3,2
Txikizkako merkataritza	-0,9	-0,8	-3,8	-1,6
<b>Bestelako zerbitzuak</b>	<b>-5,8</b>	<b>-1,3</b>	<b>-7,4</b>	<b>-2,0</b>
Garraioa eta biltegitzearena	-1,3	0,1	-4,1	-1,4
Ostalaritza	-11,3	-3,3	-10,8	-1,8
Informazioa eta komunikazioak	-11,7	-4,0	-10,3	-4,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-2,3	-1,5	-5,5	-2,5
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-7,1	-1,6	-9,5	-2,3
<b>ENPLEGU INDIZEA</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>-5,2</b>	<b>-1,2</b>		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

**Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea (ZGK)**

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Ostalaritzaren salmenta-indizea %10,8 jaitsi da; Informazio eta komunikazioena %10,3; Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuena %9,5. Jarduera profesional zientifiko eta teknikoaren salmenta-indizea %5,5 murriztu da eta %4,1 Garraio eta biltegitzearena.

Euskal AE osoan, 2013ko bigarren hiruhilekoan, zerbitzuen sektorean landunen kopurua %1,2 murriztu da aurreko hiruhilekoaren aldean.

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Prentsa-oharrak Interneten*

*Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Datu-bankua*